

Iritsi dira fakultatera Europako lehen ikasleak, Erasmus proiektuaren bidez

2007/09/17

Guztira **9 ikasle** izango dira, **7 irakasle ikasketak** egiten dutenak eta **2 Komunikaziokoak**. Denak ez datoz batera, gaur bost ikasle hasiko baitira eta urriaren 15ean beste lau.



Ikasle horiek ez dakite ez euskararik ez eta gaztelaniarik. Horregatik, ingelesa erabiliko dute bai ikasteko eta baita jendearekin komunikatzeko ere. Ikasgai batean, hori bai, oinarrizko euskara landuko dute. Lau ikasgaitan, bestalde, hemengo ikasleekin batera arituko dira ikasgelan, ingelesez.

Erasmus ikasle bakoitzak hemengo beste ikasle bat izango du lagun, gurean egokitzen eta integratzen laguntzeko. **Praktikak** ere egingo dituzte, batzuek Arizmendi ikastolan eta beste batzuek Goiena Komunikazio Zerbitzuetan. **Julia Barnes** irakaslea izango da denen tutore akademikoa.

Irailaren 17an hasiko dira:

- **Seda Eyyupoglu**. Irakasle ikasketak egiten ari da Mustafa Kemal Unibertsitatean. Hatay hiritik dator, Turkiako hegoaldean.
- **Filiz Karadagli**. Irakasle ikasketak egiten ari da Mustafa Kemal Unibertsitatean. Hatay hiritik dator, Turkiako hegoaldean.
- **Renske Opheikens**. Irakasle ikasketak egiten ari da Hanze University Groningen Unibertsitatean. Groningen hiritik dator, Herbeheretako iparraldean.
- **Kira Evve**. Komunikazioa-Kazetaritza ikasten ari da Tallin Unibertsitatean. Tallin hiritik dator, Estoniako hiriburuan.
- **Amarens de Jong**. Komunikazio Kazetaritza ikasten ari da Windesheim Unibertsitatean. Zwolle hiritik dator, Herbeheretako erdialdean.

Urriaren 15ean hasiko dira:

- **Stephanie Valkenborgh**.
- **Liesbeth Van Moll**.
- **Kathleen Janssen**.
- **Tara Thoonen**.

Laurak Irakasle ikasketak ikasten ari dira KHLIM Unibertsitatean. Hasselt hiritik datoz, Flandestik.

Ikasle hauek guztiak Euskal Herrian izango dira urtarrilaren 24a arte. Aldi horretan nazioarteko bi ikastarotan hartuko dute parte: Media and Minority Languages eta Education and Minority Languages.

Ongi etorri, bada, gure nazioarteko lagunei, espero dugu-eta ikastaro hau probetxugarri eta ahaztezina egingo zaiela.